

## OLDOZKUNAK

Itz bates ezer onik atera ezik, millagaz be nekez e'er lortuko dozu.  
Begira egizu joena, ta etorkizuna igartiko.  
Nire oner ba'diardu, lapurretan dagist; nire txarrez ba'diardu,  
iraskasle dot.  
Gizonak irabazia dakus, baña arriskuarik ez.

## BASERRI-GAIAK

Urteak daroazan amabi iletatik atsegintsuenak Orrila ta Bagila doguz. Orrilari gure artian Maietza esaten dautsagu. Ila onegaz udabarria osoan sartzen yaku. Ona eldu ezkero, neguardian baño bestelako alaisuna izadi guztian susmetan dogu. Mendi, ibar, zelai ta solo-baratzak, soñeko barri-txukunez apainduta dokusuz. Txorieki ñozkorik barrizuen. Kukue arriro bere biboliñari ekin eta ekin baserri guztiak lanerako poztutene.

Mayetzeko eguraldiak, lur-igalieta, onerako edo txarrerako, garrantzi aundia daroa. Ori dala-ta, edo zenbat esakun daukaguz: Ona emen orrelako batzuk: «Mayetzeko curia ta beroa, pozik dabil gure soloa. Mayetza ilten ba'dau, otzak, mats gitxi ta artotza makalak.—Orrilako curia, urte guztirako ardua ta ogia. Mayetza epela, ugari esnea ta okela.—Mayetza pardo, ogi ta ardo; mayetz otz, ez gari ta ez agotz.—Maietz otz, ez autz ez biotz.—Mayetza euritsu, lugina arrotxu.—Mayetzeko zazpi egun, zazpi ilabeteren lagun. Mayetza urtearen giltza.—Aundi naz, txiki naz, maietzian burnu naz. Mayetz-paskuak euritsu, urtea ogitsu. Mayetzeko artoaren ardurea ta bost semealaba dauka. zana, eztago musika-bila.

### Solo-lanak

Nekazari ta baserritarrak, Mayetzeko etxeratu ez-kero, lur-lanei erpe ta agin ekin bearrean aurkitzen dira. Udagoinen etxeratuko dana, oraintxe erein bear, izerdi askoren bidez.

Illa onetan erein bear diranak asko dira. Artoak, udarbi edo errromalatzak, baiñak, indabak, kalabazak, apiyua, berengenak, udako rabano zuria, salsipis uda-goveneko txikore kizkurra, tomate ta piperrak, uazi edo letxugak, kalabaza txikerrak, gisante txikerrak, ziazerba, goxetiko melidiak, pepino ta perejile, kardu zuria, kipulatxo, alpapa, Olandako esparrua.

Bañan bigunek eta letxuga samurrak udalde guztian euki al izateko, arlotxo bat jarri bear dozue amabost egunetik amabostera. Bañak erein leikez abuzturarte.

Loretiegian jarri leikez jeranie ta begoniak, krisantemo ta anemonak.

Matsa supratu ta sulpatatzen as leike il onen lenengotik. Matsa artzeko sulpato au bear-bearrekoa da.

Igali-zugatzai alperreko kimuak kendu. Grau edo ale lapregi dakerren adarrei, ale batzuk meaz-utea ondo da, ume geiege dituan ameak danentzako esne naikua ez daukelako.

Daliak zelan erein eta zaintzen diran itanduten dabe batzak. Azitik be ugaritu leikez, baña onluen patata edo sustraitik jartzen dira. Neguan atera leikez eta bertan itxi be bai. Udabarrian barriro zuloetan sartu, satsa ugari nastuta. Danak batera sartu barik zulo askotan obeto dato. Bare ta marraskiluek uxatuteko, inguruuan kare bizia zabaldu. Larrosa ta onango landarei be satsa ta karea ondo yatorke.

### Igali osasunkorrik

Igali edo arnari batzuk osasungarri dirala, ezin ukatu leike. Izadian eskutuki sakonak dukaguz. Enotatik asko ikasi geinke ta jakin ezkero, onura asko atera.

Lo egiteko, ona dira uraza edo letxuga, berakatzera kipula. Pizontzi edo puxigi geixoarentzako meloa. Garnu edo txixe obeto egiteko, perejile, porrua eta batez be azeribustena deitzen yakon bedarra.

Erreumea ta aunditu zarnetuak osatuteko, zaurim lotu piko-aozabala. Sabeletik bigun ibilteko, baraurik artu igali edo fruta batzuk adibide: sagarrak, naranjak, urre-madari edo limoja pikoak, masustak eta kerexak. Gaztaña egosi nai erreak be onak doguz.

Eztia izarri ta urdaleko gatxak biguntzeko osaki ona da.

Anjina, marrant estule edo sama sarratue datorre. nean, ur bero ta ospin (binagre) apur bategaz ezta nasta, gargarrak egitea ondo dator. Etreumea bigunduteko be, eztia askotxugaz, koñak edo ron piska bategaz nastuta, katilu bete ur bero edatea ona izaten da.

Arnasa gozoa erabilteko, ur berotan kolarakada bat eztia nastau, ta neste orregaz egunero agiñak garbitu. Ieztarria mindutu dagoanean, neste auxe artu.

Kirio edo nerbioak barenteko, tilo-lorea egosita artu.

Abots-motela ta sama sarratue argituteko, eukalitus-orriak egosi ta edan. Eukalitus-orritxuak agoan enkiteak be, abotsa garbi eukiteko, asko lagundutendau. Abeslari ta txonizlariantzat, osai auxe eragintsa da.

## Beserritarren esakun zarrak

Earatzetik, goesa, baratzetik asea.

Daukaguna soñean, dakiguna miñean eta ibili kalean.

Pareak bai, andrarik ez eta umeak nai.

Zuen osasunerako ta neure onerako.

On dagigula janak, gatxik ez edanak, obe zeat etzanak.

Martiartu

## Egi biribillak

67. Burdiñazko biotza be, diriak bigundutea izan leike.
68. Biotza sarritan dabil orroaka, miña egon arren ixilka.
69. Itsua itsuaren zuzendari, biak zulora baietz jaisi.
70. Beti txarroto jaten ba-dozu, baraurik naikoa egiten dozu.
71. Daukanak eralgiten dau, eztaukonak ostera, ez egun ez gau.
72. Urte txarrari erantzuteko, talo-esne ta urdai lapiko.
73. Eguraldien neurriira, garia ta artoa etxera.
74. Illai ta joan ziranai, adiskide gitxi jarrai.
75. Atzetik datorrenak, bizkorrtu dagizala o:poak.
76. Bizimodu onak askori, aita ta ama aztu eragiñ.
77. Aitaren etxea ta aitonaren mastia, tamalgarri da galtzea.
78. Gizeko arrautz eta gaurrko ogi, igesko ardo ta aurtengo ollo, mairako datozen beti ondo.
79. Gure gorputzari bear eztana ez iñoz emon, bestela oitu ezkerro beti eske egon.
80. Erriari zoriuntsu egingo dabela diñotsienak, erri orren lepotik bixi gura dabenak.
81. Emazte ona ta ama ona izateko, iru erriko alkate izateko baño, jakituri geyago bearko.
82. Bere onerako adiskide egiten jatzune, alde batera itxi apurke-apurke.

A. Martin.